

Beti harago

Ez, Katixa, ez gara hain sinpleak, ez. Eta beti daude muturretatik ateratzen direnak edo salbuespenak, zorionez.

Orokortasuna edo joera nagusia deskribatzen saiatu nintzen aurrekoan eta horrek beti dauka bere arriskua.

Biok ala biok aipatu duzue, hala hola, ezetz esatea kostatu egiten zaizuela. Ezetz esaten ikasten ari zaretela. Jose Luisen idatzia irakurri nuenean, neure burua ere bere hitzetan islatua ikusi nuen. Eta laburpen gisa edo, zera idatzi nuen: “Baietz esaten erakutsi ziguten”. Hau idazterakoan, ordea, “lanaren” kontzeptua zen nik buruan nuena —eta ez, aurrekoan bezala, marketinaren eraginari nola erantzuten diogun—; erakunde, ekimen, ideia edo pertsonen aurrean erakusten dugun konpromisoarena.

Katixarena irakurri ostean, gainera, unibertsitate garaietara joan zitzaidan gogoia. Guk ere, lagunen artean, egin genuelako halako apustu handi bat. Ez zen, preseski, ahalik eta merkeen pasatzen saiatzearena, baina bai gure bizitzan, “superbizitzeko egiteko prest gaudena” (halaxe erabiltzen baikenuen terminoa). Ariketa interesgarria izan zen, benetan.

Ariketa hartatik, normala den moduan, denetik atera zen. Lagun batek, karrera on bat egin eta ahalik eta gehien espezializatu eta lan egonkor bat aurkitzea zuen asmo (Zuzenbidea ikasten ari zen); beste batek, irakasle ikusten zuen bere burua (Filologia ikasten ari zen); “Ikastetxeak eta unibertsitateak ez direnez sekula itxiko, beti egongo da irakasleentzako lana”, aipatzen zuen. Hirugarren batek, ingeniariaritzan ikasten ari zenak, ez zuen etorkizuna hain argi ikusten, izan ere, ingeniari asko ateratzen ziren urteak baitziren. Honek, musika ere ikasia zuenez, ingeniari

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Agirre

bezala lanik aterako ez balitzai, musika eskola partikularrak emango zituela esaten zekien. Bagenuen gure artean albaitaritzan ikasten ari zenik ere, eta honek, “beti geldituko zaigu etxean matematika-ko klase partikularrak ematea” esaten zuen. Marinel batekin ezkondu eta hiru ume izango zituela esaten zuenik ere bagenuen tartean.

Honentzako, zorionaren paradigma hura xe baitzen: herrian gelditu, aitaren bideak jarraituko zituen gizon bati lotu, eta familia ugari bat egituratzea.

“Gertatu hala gertatu, beti izango dugu lana”. Gezurra badirudi ere, halaxe sinatu genuen lagun arteko itun sekretua.

Zertara noan? Bada, bizitzarekin eta eginbeharrarekin konprometitzen erakutsi zigutela; argi genuela “gu” ginela, eta ez beste inor, gure buruaren eta gure etorkizunaren jabe bakarrak. Etorkizunaren jabetzak ez baitu esan nahi “handitan” zer izan nahi dudana deskribatzea, etorkizun hori gauzatzeko “harago” joateko prest egotea baizik. Prest geunden eskuturretako botoiak askatu eta alkandoraren mangak ukalondora igotzeko.

Gaur egungo gazte olatu berriak ez dakit “harago” joateko ideia hau hain errota daukan. “Konpromiso” hitza aipatzen duzunean feedback-a eskatzen dute, hau da, konprometitzen dira “beste alde” ere konprometitzen den heinean, bestela, ez; eta etorkizunerako edozein

apusturi ere ez diote adarretatik heltzen, “baldin eta” bat ez badago.

Badakit berriro ere muturreko egoerak kanpoan uzten ari naizela, zorionekoak hauek, baina, zorigaitzez, gehiengoak, dirudit, ez duela bere gaitasunean sinesten edo eta ez zaiola interesatzen bere ahaleginaren gainean apustu handiegirik egitea, badaezpada ere. **n**



Etorkizunaren jabetzak ez du esan nahi
‘handitan’ zer izan nahi dudana deskribatzea,
etorkizun hori gauzatzeko ‘harago’
joateko prest egotea baizik

